

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

#### **284/2016 Foru Agindua, irailaren 23koa, onartzen duena lehenago egindako inbertsioak 2016ko ekitaldian berriz egiteko autonomoentzako laguntzen deialdia**

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen esparruan dago autonomoen erregimenean lan egiten duten pertsonen jarduera bultzatzen duten ekintzak eta ekimenak garatzea.

Berriki Arabako Foru Aldundiak Arabako Merkataritza eta Industria Ganberarekin sinatutako bi lankidetzak hitzarmen abiarazi ditu, Alerta Goiztiarreko Programa martxan jartzeko saltegietan eta Txanda Programa zerbitzuen sektorean.

Alerta Goiztiarreko Programaren bidez lortu nahi dena da saltegietako arazoak eta arriskuak antzeman eta haiei aurre hartzea; baita ekintza plan bat definitzea ere, negozioaren jarduerarako kaltegarritzat jotzen diren eremuetan benetako aldaketak eragingo dituen.

Halaber, Txanda Programaren bidez lortu nahi dena da merkataritza eta zerbitzuen sektoreko Arabako enpresen jabeek beren negozioak beste autonomo batzuei eskualdatzea, haien merkataritza jarduerarekin jarraitzeko aukera izan dezaten.

Bi programen ondorioz, autonomoek ekipoak berri edo inbertsio berriak egin behar dituzte, eta horrek diru aldetik ahalegin handia eskatzen die.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez, onarpena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileei; araudi horrek arautzen ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak lehia araubidearen pean ematen dituen dirulaguntzak.

Oinarri horiek onartuz gero, eta ahalik eta zabalkunderik gehien ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, aginduzkoa da laguntzetarako deialdia ezartzea, zeina inbertsioak 2016ko ekitaldian berriz egiteko autonomoentzako laguntzen oinarria izango baita.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lehenago egindako inbertsioak 2016ko ekitaldian berriz egiteko autonomoentzako laguntzen deialdi publikoa onartzea.

Bigarrena. Deialdia arautzen dute Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntzak lehiaketa araubidean emateko oinarri orokorrek (Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretua, 2016ko martxoaren 30 asteazkeneko ALHAOn, 36. zenbakia, argitaratua), eta foru agindu honen eranskinean xedatutakoek.

Hirugarrena. Foru Agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2016ko aurrekontuko 30.5.02.35.03.770.00.01 gastu partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 16.1.16.105.4078/000) ordainduko dira, zeina 40.000,00 euroz hornitua baitago.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenaren, 116. artikuluekin bat etorritik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daioke Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 23a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta  
Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua  
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR*

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria  
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES*

## ERANSKINA

### LEHENAGO EGINDAKO INBERTSIOAK 2016KO EKITALDIAN BERRIZ EGITEKO AUTONOMOENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

#### 1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da autonomoei laguntzea lehenago egindako inbertsioak berriz ere egin ditzaten 2016ko ekitaldian eta/edo beste inbertsio batzuk egin ditzaten.

#### 2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

Foru Agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2016ko aurrekontuko 30.5.02.3503.770.00.01 gastu partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 16.1.16.105.4078/000) ordainduko dira, zeina 40.000 euroz hornitua baitago.

#### 3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Hauexek izan daitezke erakunde onuradunak, eta laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskuratu ahalko dituzte:

– Langile autonomoak; hau da, norberaren kontura jarduten diren eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan daukaten pertsona fisikoak.

– Autonomoek osatutako sozietate zibilak eta ondasun erkidegoak.

– Beste edozein motatako merkataritza sozietateak, baldin eta enpresako partaidetzaren % 50, behintzat, Gizarte Segurantzako kasuan kasuko erregimenean kotizatzen duten langileena bada; hau da, Gizarte Segurantzako autonomoen erregimen berezian edo kooperatiben zein lan sozietate mugatuen kasuan erregimen orokorrean kotizatzen duten langileena.

Bete beharreko betekizuna izango da eskatzaileak parte hartu izana edo hura parte hartzen aritzea Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak eta Arabako Foru Aldundiak sustatutako Alerta Goiztiarreko Programan eta/edo Txanda Programan, biek horretarako sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan; bestela/baita Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko merkataritza ganberak sustatutako Enpresak Eskualdatzeko Programan (Berriz enpresa) ere.

3.2. Kide bihurtzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa eragiten duten entitateak ezingo dira izan dirulaguntza hauen onuradun, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 24.2 artikulua (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea).

Halaber, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexu bereizkeriagatik zehapen administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, harik eta zehapenean ezarritako epea amaitu arte, eta ezta ere Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legea aplikatuz honelako deialdietan parte hartzeko debekua zehapen gisa ezarri zaienek, hala xedatzen baita 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.5 artikulua (azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duena), Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenak emandako idazketaren arabera (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa).

#### **4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

4.1. Diruz lagundu ahalko dira proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, hala nola:

Lokalak egokitzeko obrak.

Jarduera garatzeko beharrezkoak diren altzariak eta/edo ekipamenduak/instalazioak.

Informatika ekipoak, softwarea barne.

Errotuluak, eguzki oihalak eta saretak.

Irudi korporatiboko eta/edo webetako elementuak diseinatu eta garatzea.

Marken erregistroa.

Kanpoko zerbitzuak eta/edo aholkularitza bereziko zerbitzuak.

4.2. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta erakunde onuradunak ordaindu egiten baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak ez dira inolaz ere diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko, berreskuratzeke edo konpentsatzeko modukoak direnean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

4.3. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea baimentzen da, betiere 38/2003 Legearen 29. artikulua ezarritako baldintzak betez (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra).

4.4. Ez da diruz lagunduko eskatzailea ez den beste jabe batek lehenago erabilitako ekipoak eta/edo inbertsioak erostea.

#### **5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea**

Deialdi honen onuradunak diren erakundeek 2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 16ra bitarteko aldi egin beharko dituzte inbertsioak.

#### **6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak**

6.1. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuei aplikatu dakiekeen dirulaguntza ehuneko 50 izango da; gehienez ere, 6.000,00 euroko dirulaguntza emango da autonomoko eta sozietateko.

6.2. Justifikatu behar diren gastu diruz lagungarrien gutxienezko zenbatekoa finkatzearen, adituko da diruz lagundu daitekeen oinarria honako eragiketa honen emaitza dela: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa zati aplikatzen den dirulaguntzaren ehuneko; alegia, kasu honetan, % 50.

6.4. Dirulaguntzarako eskubidea izateko, diruz lagundu daitezkeen gastuen gutxienezko zenbatekoa 300 euro izan beharko da.

### **7. artikulua. Dirulaguntzen bateraezintasuna**

7.1. Eskatzaileak beste laguntza batzuk jaso ahaliko ditu aurkeztutako jarduerengatik, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, baina bateraezina izango dira foru agindu honetako laguntzekin.

7.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza ukatzea proposa dezakeen.

7.3. Dirulaguntza eskatzen duen erakundeak aurretik beste bat jaso baldin badu helburu bererako, hala adierazi beharko du eskaeran. Kasu horretan, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak eragina izango badu, erakunde onuradunak uko egin beharko die aurretik eskuratutako dirulaguntzei; halaber, jasotako funts publikoak itzuli beharko ditu, hala badagokio.

7.4. Dirulaguntza eta dagozkion berandutze interesak itzultzeko eskatu beharko da, baldin eta Arabako Foru Aldundiak jakiten badu erakunde onuradun batek beste dirulaguntza bat edo batzuk jaso dituela, emandakoarekin bateraezina direnak, eta ez diela uko egin behar den bezala.

### **8. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskudunak**

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela eratuta egongo da:

– Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

### **9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

9.1. Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia Plaza, 5 - 01001, Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio (Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza); edonola ere, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

9.2. Eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea egongo da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9.3. Ebazpen honetan araututako laguntzak eskuratzeko eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Lehenago egindako inbertsioak 2016ko ekitaldian berriz egiteko autonomoentzako laguntzen deialdirako eskaera.

b) NANaren fotokopia autonomoen kasuan, eta IFZrena sozietateen kasuan.

c) Eskatzailearen enpresa jarduerari buruzko memoria.

d) Arabako Merkataritza eta Industria Ganberaren egiaztagiria esanez eskatzaileak parte hartu duela edo hura parte hartzen ari dela Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak eta Arabako Foru Aldundiak sustatutako Aleria Goiztiarreko Programan eta/edo Txanda Programan; bestela/baita Eusko Jaurlaritzak sustatutako Enpresak Eskualdatzeko Programan (Berriz enpresa) ere.

e) Eskatzailearen adierazpena baimena emanez Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailari kasuan kasuko administrazioari zerga izaerako datuei eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzko informazioa eskatu diezaion, laguntzak emateko arauetan eskatutako baldintzei dagokienez; halaber, esan beharko du ez diela eskatu laguntzarik beste erakunde batzuei laguntza deialdi honetarako aurkeztutako jardun berdinetarako.

f) Inbertsio/jardunen azalpena, zeinetarako dirulaguntza eskatu den, bai eta haiek egitearen arrazoiak ere, haietako bakoitzaren aurrekontua xehakatur.

g) Inbertsio/jardunen, zeinetarako laguntzak eskatu diren, eskaintzen fotokopia. Aurkeztutako inbertsio/jardunen batek kontratu txikien muga gainditzen badu (50.000,00 euro obretarako eta 18.000,00 euro gainerakorako), eskatutako 3 eskaintzen fotokopia erantsi beharko da ondasuna sartu baino lehen, eta zein eskaintza hautatu den eta zergatik azaldu beharko da.

#### 10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioztatzeko irizpideak

10.1. Aurkeztutako jarduerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioztatuko dira:

a) Egingo diren inbertsioen justifikazioa edo premia, eta haiek eskatzailearen lehiakortasuna hobetzean izan dezaketen eragina (30 puntu).

Handia	30 puntu
Ertaina-handia	25 puntu
Ertaina	15 puntu
Ertaina-txikia	5 puntu
Txikia	0 puntu

b) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez 20 puntu).

Eskaera aurkezterakoan hura osorik egon da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da	20 puntu
Eskaera aurkezterakoan hura osorik egon da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila ertaina izan da	15 puntu
Eskaera aurkezterakoan hura ez da osorik egon, baina geroago osatu da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia edo ertaina izan da.	10 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0 puntu

c) Eskatzaile mota (gehienez 20 puntu)

Banakako autonomoak	20 puntu
Sozietate zibilak edo ondasun erkidegoak	10 puntu
Beste mota batzuetako merkataritza sozietateak	5 puntu

d) Eskatzaileak parte hartu duen merkataritza programa (gehienez ere 30 puntu).

Arabako Foru Aldundiko Alerta Goiztiarreko Programa edo Txanda Programa	30 puntu
Eusko Jaurlaritzaren Enpresak Eskualdatzeko Programa (Berriz)	5 puntu

10.2. Dirulaguntza emango zaien erakundeak zehaztu eta haien arteko azken hautaketa egiteko, eta bakoitzari emango zaion dirulaguntza zenbatekoa izango den zehazteko, Diputatuaren Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

### 11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

11.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Ebazteko epea Diputatuaren Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

11.2. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira. Nolanahi ere, 30/1992 Legearen 59. artikuluan ezarritakoaren arabera jardungo da (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).

11.3 Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio bidea, eta, beraren aurka, 30/1992 Legearen 116. artikuluekin bat etorriz (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena), berraztertze errekurtso aukerakoa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegiari, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

### 12. artikulua. Dirulaguntza justifikatu eta ordaintzea

12.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaindu beharra onartzeko, onuradunak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2016ko abenduaren 16a baino lehen:

Justifikazio fakturen zerrenda, hauexek adieraziz: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkitze epea eta ordainketa eguna, hala badagokio.

Adierazpen bat esanez justifikazio fakturak ez direla aurkeztu laguntzen inolako deialdi batean ere.

Justifikazio fakturen kopia.

Kontratu txiki gisa ezarritako zenbatekoak (50.000,00 euro obretan edo 18.000,00 euro gainerrako kontratuetan) baino gehiago edo haien besteko gasturik izanez gero, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hautaketa horren justifikazioarekin batera, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eta justifikazio txostena ere bai, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, non eta ez den aurkeztu eskaera egiterakoan, gerora gastu erreala kontratu txiki gisa ezarritakoaren beste edo hori baino gehiago izanik.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukeran izango du beste dokumentu batzuk ere aurkeztea, egokia baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

Profesionalek luzatutako fakturen kasuan, onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, onartu egingo da justifikatu beharreko ordainketa egiteko betebeharra, eta Arabako Foru Aldundiaren arduraren izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta dagokion justifikazio txostena egitea. Baldin eta egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, eskatuko da dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko.

12.3 Onuradunak lehenago aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren egiaztagiriak (banku transferentziak edo laburpenak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigiluarekin) aurkeztean, betiere 2017ko urriaren 2a (egun hori barne) baino lehen, ordainduko da dirulaguntza.

#### **14. artikulua. Garapena**

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputuari ahalmena ematen zaio foru ebazpen hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onar dezan.

#### **15. artikulua. Azken klausula**

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzia; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duena (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra).